



TALAI A INSTITUTUKO IRAKASLEEN KONTRAKO SALAKETA PENALAREN AURREAN

Azken egun hauetan hedabideen bidez jakin dugu Jokin Zren familiak Talaia Institutuko zuzendari, ikasketaburu, tutore eta irakasle baten kontrako salaketa jarri berri dutela.

STEE-EILAS sindikatuak honen aurrean honako hau adierazi nahi du:

Hasteko, gure elkartasuna adierazi nahi diegu irakasle horiei eta gure laguntza eskaini ere

Ez dugu zilegi ikusten ikasleen arteko jazarpenaren arazoaren aurrean bide judiziala modurik egokiena eta pedagogikoa denik, gizarte-arazo larri hau konpontzeko.

Bestetik, agerturiko irakasleen aurkako salaketaren argudioak ez ditugu inola ere ez konpartitzen.

Lehenik eta behin, egia da ikasleen ardura eskola orduetan irakasleok dugula baina egoera tamalgarri honen ardura ezin da soilik irakasleen gain ezarri. Baloreen transmisioa guztion ardura da, familia, eskola eta gizartearena. Denak elkarrekin eta ez elkarren kontra etsaiak bagina bezala.

Arinkeria litzateke esaten den bezala, "lau irakasleak, salatu dituztenak Jokinen heriotzaren erantzuleak direla era batera edo bestera" esatea. Ematen den argudio bakarra gertatzen ari zenaren berri ez izatea delarik. Non zeuden ikasle, guraso eta komunitate eskolarra osatzen dutenak ? Ezin al da leporatu haiei irakasle hauei leporatzen zaien gauza bera ?.

Sei hilabete dira irakasle eta Talaia Institutuko komunitate eskolarra jasandako epaiketa mediatikoa, hori gutxi balitz, orain beste epaiketa bat dator.

STEE-EILASetik gai honetan inplikaturik dauden alde guztiei behar diren bidetik gai hau konpon dezaten eskaera egiten diegu. Hezkuntza Sailak duen ardura ere ezin dugu ahaztu eta exijitzen diogu benetako lanari ekin diezaiola ,behingoz.

Donostian, 2005eko martxoaren 12an

STEE-EILASeko KONTSEILU NAZIONALA